

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Burruntzali

GAITZEN BILAKAERA ezagutzeko landare berak jartzen diren tankera beretsuan, izurriteak ikaratzeko erabiltzen direnak ere badira. Zakurtegieta ohikoa da amatxilorea, *Tropaeolum majus*. Mendak (*Mentha sp.*) bezala, arkakusoak urrunarazten ditu, baina hark ez bezala, baita bakastak edo akainak eta euli samaldak ere izutu eta uxatu.

Soro eta baratzetan, aleak ematen dituzten landareen babeserako auzokide kirmena da amatxilorea. Ikusi ordurako urrutiratzeko sena pizten zaie intsektuei, zorri eta abarrek eztena sartzeko beste norabaiteko bidea hartzen dute. Landarea sumatze hutsak zomoroen artean eragiten duen izu bera, bere infusio edo urak ere sustatzen du.

Uxatzeko adinakoa ez, baina pizgarri eder dira amatxilorearen kimua eta lorea entsaladan. Bere garratz puntu politak listu-jarioa

bizkortzen du. Uda osoan etengabeko loraldian murgiltzen denez eskuera dugu. Zopen bixigarri era bada. Lore-pipittak eta fruitu-koxkor heldu gabeak ozpinetan onduta jan ohi dira, kaparraren antzera (*Capparis spinosa*).

Burruntzali batetik bestera. Burruntzali-zopa dastatzen duen ahoko zuloa baino goraxeagorako ere ez da makala amatxilorea. Koadrilan burusoilei deitzen diegu burruntzali. Eta buru-larruazala soil-tzetik libratzeko ona omen, zehatu eta ore gainean emanez gero ilearen zaina indartu eta haren hazkundera kitzikatzen du, nonbait. Buru beraren mina baretzeko bainu-urari botatzen diote Ameriketara. Han ez dira oker ibiliko, bertakoa baitute, berez, amatxilorea. Jesuitek erakutsi zioten Atlantikoaren beste aldea XVI. mendean. Eta gustatu. Egun, kostalde epeletan inbaditzaile deitzen diote.

Amatxilorea, *Tropaeolum majus*.

Piper errea: Ipurterrea, kakapirria, erretxina, prakerrea, triperrea, kaka errea... Era askotara esan daiteke piper errearena.

Piper sasoia hemen datorkigu. Piperminak lehenik eta ondoren Gernikakoak, Ezpeletakoak, Lodosako pikilloak, txorizeroak, pipermorroak... Ameriketatik ekarritako fruitu jende honen

zale amorratu bihurtu gara euskaldunak.

Piperra olio ez tatan erregosi behar dela dio nire iritziz munduko onenak jartzen dituen lagun batek. Potokoaren aldean gutizia da piper berri erregosia, edozein. Belztu gabe, erre gabe, baina. Behin kiskali eta erreta, horixe, piper errea, ezertarako



JLASTRAS-CC BY

balio ez duena, zakurraren putza. Nonahi piper-potoa muturraren aurrean jartzen ari zaizkigun honetan, horixe, pipertu behar... edo erre.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Bolaleku S.A.T.
Konpost planta

Bi•lurra
Compost organiko organikoak

LORE•LURRA
Bularrak erretzeko

Lur begetal ongarritua, ereindakoa, estaltzekoa,
Idor apaingarriak, trabesak.

Baio bidea, 13 (Emerando)
Tlf.: 94 674 33 55
677 42 64 00
www.bolaleku.com

48100 Mungia
Bizkaia

Urtinea
landare mintegia

Etxeko ekoizpena

Mota guztietako lore eta
landareak salgai

Urtinea baserria,
San Esteban auzoa
20170 Usurbil

Tel: 943 36 22 55
urtinea@euskalnet.net